

[Eusk/Cast] La farsa del despliegue masivo de la energía renovable

EUSKAL HERRIA BIZIRIK :: 24/03/2024

Energia berriztagarrien zabalpen masiboaren iruzurra

[Euskara]

Energia berriztagarrien zabalpen masiboaren iruzurra

EH Biziriketik sarritan izan dugu energia berriztagarrien zabalpen masibo honen atzean ezkutatzen den eredu ekonomikoa. Hazkunde ekonomikoa ezinbesteko baldintza duen eredu ekonomikoan -kapitalismoan, alegia-, ongizate ekologiko eta sozialik ezin baita lortu. Artikulu honetan, EAEko eta Nafarroa Garaiko instituzio eta berriztagarrien enpresa multinazionalen jardunaren nolakotasuna datu zehatzekin azaltzen saiatuko gara, argi gelditu dadin instituzio eta berriztagarri enpresen interesa, funtsean bera dela: edozein ondorioren gainetik, hazkunde ekonomikoa.

Alde batetik, urtarriaren erdialdean Arantxa Tapia sailburuak iragarri zuen EAEn 15 parke eolikoren esleipenak tramitatzentz ari zirela, nahiz eta oraindik lurralteko plan sektoriala (LPS, gaztelerazko PTS) onartu gabe izan. Ez zuen esan ordea, LPS horren diseinuan dagozkion hainbat kontratu Saitec enpresari esleitu zizkiotenik. Kontratu horietako batean, esaterako, 168.000 euro eman zizkieten, bigarren kontratu batean 141.570 euro eta hirugarren kontratu batean 7.400 euro. Garrantzitsua da azpimarratzea Saitec, bere filiala den Itsas Wind-en bitartez, Armintzan itsas parke eoliko handi baten sustatzailea dela. Beraz, energia berriztagarrien zabalpen masiboaren bitartez negozioa egiteaz gain, EAEko lurralteko plan sektorialaren diseinuan parte izan da. Negozio borobila Saitec enpresarentzat.

Bestalde, esanguratsua da Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Iberdrola eta Repsoleko ahokulariek gidatuta, esku pribatuen interesetarako egiten ari den lan guztia. Horren adibide dira EEE eta Iberdrolaren parte hartzearekin Aixeindar operadorea aurrera eramatzen ari den proiektuak, hala nola, Labrazakoa eta Azazetakoa. Edota EEE eta Solariaren artean bultzatzen ari diren *Vitoria solar I y II* proiektuak. Aipatzeko da, Solaria, Blackrock putre funtsek gidaturiko enpresa dela. Argi dago, beraz, zein den EAJ-PSEE koalizioaren trantsizio energetikoaren ideia: orain arteko logikari jarraituz negozio bide berriak ustiatzen jarraitzea.

Bide beretik doa Nafarroa Garaiko gobernuak ere eta horren adierazle da *Agrowind Navarra 2013 S.L.* ren gertakaria. Agrowind enpresa 2012an hasi zen Larraga, Berbintzana eta Miranda de Argako udaletan eolikoak ezartzeko proiektua aurkezten eta 2018rako obra baimen guztiak zituen. Hala eta guztiz ere, ez zituen azpiegitura lanak hasi eta hiru urteren ostean; eolikoak ezartzeko baimena iraungitzat eman beharrean, beste bost urteko luzapena eman zion Nafarroako Gobernuak guztiz modu irregularrean. Hori ulertzeko beharrezkoa da jakitea benetan zein zen enpresa hau sortzearen helburua. Agrowind enpresa sortu zutenean 4000 euroko kapital soziala besterik ez zuen, horrek argi erakusten du bere asmoa

hasieratik ez zela eolikoak eraikitzea, proiektu hau saltza baizik. Azekenean 2022an enpresa bere proiektu eta guzti saltza lortu zuen Saudi Alfanar taldeari 202 milioi euroren truke. Operazio hau guztia aurrera eramaterakoan “*Nafarroako Gobernuko Habitat Sailaren 2013ko abenduaren 31ko ingurumen-inpaktuak ebaluatzeko txostenak*” ontzat ematen ari dira, zaharkituta dagoen ingurugiro baimen bat alegia. Negozio borobila Agrowind enpresarentzat, ingurugiroaren kaltetan.

Lekunberri eta Etxeberri artean eraiki nahi duten gas-hodia dugu beste adibide bat. Politikari guztien ahotan energia berriztagarrien zabalpen masiboa ematea dagoen unean eta auzi ekologikoa kinka larrian den honetan, Aralarko mendi lerrotik gasa garraiatzeko baimena emana dago, gasbidearen trazadurak Aralar mendilerroko Kontserbazio Bereziko Eremuari (KBE, ZEC gaztelerez) eragingo lioke bost km-ko luzeran. Zortzi metro zabal eta 0,8 m-1,5 m arteko sakonera du ireki beharreko kanalak; horrek 6000 zuhaitz moztea esan nahi duelarik.

Beraz, argi ikus daiteke Nafarroako Gobernuan urte hauetan guzietan parte hartu duten alderdi politiko guztien gestioak, norabide berean eman dituztela pausoak. Irabazi ekonomikoak lehenesten dituen norabidean, hain zuzen.

Edozein kasutan, zorrotz begiratu behar zaio EH Bilduk kudeaketa eredu horri plantenatzen duen alternatibari ere., argi ibili beharra daukagu gestio eredu horren aurrean bere burua alternatiba gisa aurkezten duen EH Bildurekin.

Hasteko, garrantzitsua da gogoraraztea EAEko “Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren legea” PNV, PSEE eta EH Bilduren babesarekin onartu berri dela. Horrek hiru alderdi politikoek trantsizio energetikoaren auzian duten antzekotasuna agerian uzten du. Norabide honetan sakonduz, EH Bilduk orain arte defendatu duen enpresa eredua aztertuko dugu jarraian, Statkraft enpresa zehazki.

Statkraft eta Equinor energia arloko Norvegiako enpresa publikoak dira. Bi enpresa hauek garrantzia handia dute Europa mailan. Equinor Europaren kontsumitzen den gasaren %20ren hornitzalea da eta hidrokarburoen offshore ustiaketan mundu mailako enpresarik handiena. StatoilHydro izenpean egiten du lan gaur egun. Statkraft enpresa, berriz, Europako energia berriztagarrien ekoizle handiena da, fiordoetan ezarri dituzten presa hidroelektrikoen bitartez ekoizten du elektrizitate gehiena. Horrez gain, mundu osoko hogei herrialdetara zabalduta dago.

Statkraften defentsa egin asmo dutenek, enpresa publiko izatearen garrantzia azpimarratzen dute behin eta berriz. Baino gorago EEErekin ikusi dugun moduan publiko izateak ez du esan nahi herritarren interesak defendatzeko asmoa dutenik. Horren adibide garbiak dira Sami komunitatean, Txileko Litueche komunan edota Galizan emandako gertakariak.

Norvegia iparraldean 152 eolikoz osatutako parke eoliko erraldoi bat ezarri zuten, eta horren aurrean Sami komunitateak oposizio argia erakutsi zuen, mobilizazio, ekintza eta abarren bidez. Ibilbide luze horretan, bide judiziala ere jarri zuten martxan eta azken instantzian arrazoia eman zieten; baina, gaur gaurkoz, proiektua martxan dago eta elektrizitatea ekoizten ari da. Adibide horrek argi erakusten digu Statkraftek duen balizko

kode etiko hori hitzontzikeria besterik ez dela, bere interesak zalantzan ikusi zituen unean irabazi ekonomikoa lehenetsi baitzuen bertako biztanleen interesen aurrean. Bide beretik doa Norvegiar estatuaren jokabidea ere. Izan ere, hau proiektuaren defentsan atera zen, atzera egiteak etorkizuneko inbertsioak oztopatu ote zitzakeen beldur. Credit Suiss, esaterako, parke erraldoi horren parte zen, zaindu beharreko inbertitzalea.

Txileko gertakariak ere antzeko bidetik doaz, eoliko erraldoiek aterako zuten zaratak inguruko biztanleen gain sortu zitzakeen osasun arazoен ondorioz, bertan behera gelditu ziren proiektuak, baina Statkraft ez zegoen ados eta honela zioen: *"Hiru parkeen eraikuntzari dagokionez (% 90etik gorako aurrerapena dute, eta, beraz, azken eraikuntza fasean dago), enpresak eskura dituen tresna guztiak erabiliko ditu hau aurrera eramateko, herrialdeak helburu gisa jarri duen trantsizio energetikoan pausu oso garrantzitsua baita proiektu hau".*

Galizian 2021. urtean mobilizazio jendetsuak izan ziren Statkraftek Spainiar estatu mailan egin nahi duen lurreko proiektu handienaren aurrean. Proposatutako proiektu guztien artean 400Mw ezartzeko asmoa du enpresak. Ingurunearen aberastasun natural, arkeologikoak eta herritarren desadostasunak, momentuz, ez dute lortu proiektua bertan behera uztea, nahiz eta orain dela gutxi jakin dugun Trantsizio Energetikoaren Ministerioak behin behineko geldialdi eskatu duela hauetako proiektu batzuentzat.

Bestalde, datuei erreparatzen badiegu,

- Norvegiar estatuaren esportazioen %40 hidrokarburoen salmentan oinarritzen da, eta argisan dute datozen urteetan oraindik esploratu gabe dagoen gas eta petrolioa aurkitzen jarraituko dutela Artikoan
- Statkraft enpresak 2023ko ekitaldian inoizko irabazi handienak izan ditu: 2.300 milioi eurokoak

Statkraftek Enerfin (1.800 milioi) eta Solarcentury (130 milioi) erosi ditu

Garrantzitsua da aipatzea, EH Bilduk beste modu bateko enpresa eredu gisa saldu nahi duen Statkraft enpresak, eta zehatzago esanda Norvegiar gobernuak, Iberdrolarekin duen lotura zuzena. Iberdrolako hiru akzionista esanguratsuenen artean dago *"Norges Bank Investment Management"* Norvegiar estatuaren pentsio funtsa, *"Qatar"* eta *"Blackrock"* ekin batera. Bestalde, Statkraft eta Iberdrola elkarlanean ari dira Polonian aurrera eramaten ari diren proiektu batean.

Hori guztia ikusirik, argi gelditu da Statkraft eta Norvegiako gobernuak, tokian tokiko herritarren interesen aurrean eta bizi garen krisi energetikoaren aurrean, hazkunde ekonomikoa lehenesten ari direla. Ondorioz, EH Bilduk energia trantsiziorako duen proposamenak *alternatibotik* ez du ezer. Eredu ekonomiko berean kudeatzaile izan nahi duenak eginiko proposamena da, besterik ez.

Energia berritzagarrien zabalpen masiboaren iruzurrari aurre egiteko, apirilaren 13an Azpeitian egingo dugun manifestaziora batzeko deia egiten dugu. Animatu eta parte hartu!

[Castellano]

La farsa del despliegue masivo de la energía renovable

Desde EH Bizirik, a menudo hemos denunciado el modelo económico que se encuentra detrás del despliegue masivo de las energías renovables. Precisamente porque en el modelo económico actual, es decir, en el capitalismo, el cual tiene como condición necesaria el crecimiento económico, el bienestar ecológico y social son imposibles. En este artículo intentaremos exponer, mediante datos concretos, las características de la actividad de las empresas multinacionales de renovables y las instituciones de la CAV y Navarra, dejando claro que, en esencia, el interés tanto de las instituciones como de las empresas de renovables es el mismo: sea cual sea la consecuencia, crecimiento económico.

En primer lugar, en enero la consejera Arantxa Tapia anuncio que, en la CAV, se estaban tramitando la asignación de 25 parques eólicos, a pesar de que todavía no estaba aprobado el Plan Territorial Sectorial (PTS). Tampoco dijo nada sobre que varios diseños relativos al PTS fueron asignados a la empresa Saitec. Por ejemplo, en uno de dichos contratos, dicha empresa recibió 168.000 euros, en otro 141.570, y en un tercero 7.400 euros. Es importante resaltar que Saitec, mediante Itsas Wind, su propia filial, es el impulsor de un parque eólico marino en Armintza. Por tanto, además de hacer negocio mediante el despliegue masivo de energía renovable, ha participado en el diseño del Plan Territorial Sectorial de la CAV. Negocio redondo para Saitec.

Por otro lado, es significativo todo el trabajo que el Ente Vasco de la Energía (EVE), comandados por consejeros de Iberdrola y Repsol, está realizando para manos privadas. Esto lo ejemplifican, por un lado, el proyecto que el operador Aixeindar está llevando a cabo, con la participación del EVE e Iberdrola, en Labraza y Azazeta, o, por otro, el proyecto *Vitoria solar I y II* impulsado por EVE y Solaria. Es de mencionar que Solaria es una empresa dirigida por el fondo de inversión BlackRock. Queda claro, pues, cual es la idea de transición energética de la coalición PNV-PSE: continuar con la lógica actual explotando nuevas oportunidades de negocio.

Se puede observar que, mediante el caso de *Agrowind Navarra 2013 S.L.*, el gobierno de Navarra ha optado por la misma vía. En 2012 la empresa Agrowind empezó a presentar proyectos en los ayuntamientos de Larraga, Berbintzana y Miranda de Arga con el objetivo de implantar eólicas, y para 2018 consiguió las licencias de todas las obras. Aun así, no inició la construcción de la infraestructura y, después de tres años, en vez de dar por concluida la licencia para poner eólicos, el gobierno de Navarra, de forma irregular, le ofreció una prórroga de cinco años. Para entender esto, es necesario entender cuál es el objetivo de la creación de dicha empresa. Y es que, cuando se creó Agrowind, la empresa no tenía más que 4000 euros de capital, lo que muestra que el objetivo no era la construcción de eólicas, sino vender el proyecto. Al final, en 2022 consiguió vender la empresa, con proyecto incluido, al grupo Saudi Alfamar por 202 millones de euros. Al llevar a cabo dicha operación, se dan por válidos los informes del 2013 para la evaluación de impactos ambientales de la Sección de Hábitats del Gobierno de Navarra, una licencia medioambiental obsoleta. Negocio redondo para la empresa Agrowind, en perjuicio del

medioambiente.

Podemos encontrar otro ejemplo en el gaseoducto que quieren construir entre Lekunberri y Etxeberri. En un momento donde, por un lado, el despliegue masivo de las energías renovables está en boca de todos los políticos, y, por otro, la cuestión ecológica se encuentra en apuros, se ha concedido la licencia para transportar gas tras la cordillera de Aralar. El trazado, clasificado como Zona de Especial Conservación (ZEC), será afectado en 5 km mediante un canal con una profundidad de entre 0,8-1,5m, y 8 metros de ancho, lo cual implicaría la tala de 6000 árboles.

En este sentido, se puede observar que la gestión realizada durante todos estos años por partidos políticos que han gobernado en Navarra apunta en la misma dirección: en la dirección que prima los beneficios económicos.

En cualquier caso, también debemos estar atentos con EH Bildu, que se presenta a sí mismo como alternativa al modelo de gestión descrito hasta ahora. Para ello, hay que observar de forma rigurosa la alternativa planteada por EH Bildu a dicho modelo de gestión.

Para empezar, es necesario recordar que la “Ley de Transición Energética y Cambio Climático” de la CAV ha sido aprobada por PNV, PSE y EH Bildu. Esto deja claro las similitudes entre los tres partidos políticos en materia de transición energética. Siguiendo el camino trazado hasta ahora, analizaremos el modelo de empresa defendido por EH Bildu: Statkraft.

Statkraft y Equinor son empresas energéticas de Noruega, de carácter público, las cuales tienen gran relevancia a escala europea. Equinor abastece el 20% del gas consumido en Europa, y es la empresa más grande del mundo explotando hidrocarburos *offshore*. Hoy en día trabaja bajo la firma StatoilHydro. Statkraft, en cambio, es el mayor productor de energía renovable de Europa. La electricidad mayormente la produce mediante presas eléctricas. Además, tiene presencia en 20 países de todo el mundo.

Los defensores de Statkraft, una y otra vez utilizan el argumento de ser una empresa pública. Pero tal y como hemos observado con el EVE, el hecho de ser público no quiere decir que tiene la intención de defender los intereses populares. Esto se puede observar en los hechos acontecidos en la comunidad Sami, en la comuna de Litueche en Chile o en Galicia mismo.

En el norte de Noruega implantaron un parque eólico de unos 152 aerogeneradores, en contra del cual la comunidad Sami ha opuesto una oposición firme mediante movilizaciones, diversas acciones etc. Durante el largo camino, pusieron en marcha el camino judicial mediante el cual consiguieron que se les diese la razón. Aun así, a día de hoy, el proyecto está en funcionamiento, produciendo electricidad. Este ejemplo deja claro que el código ético que tanto predica Statkraft es pura palabrería, ya que en un momento donde vio sus intereses en peligro, priorizó los beneficios económicos contra los intereses de la población local. El comportamiento del estado noruego camina por la misma vía. De hecho, salió en defensa del proyecto, acongojado por sus futuras inversiones. Credit Suiss, por ejemplo, inversor al que había que cuidar, era parte de dicho enorme parque.

Los acontecimientos de Chile también apuntan en la misma dirección. Los proyectos fueron suspendidos a causa de los problemas de salud que podían propiciar los ruidos de los enormes aerogeneradores. Pero Statkraft no estaba de acuerdo. Decía así: “*En cuanto a la construcción de los tres parques (tienen el adelanto del 90%, y, por tanto, están en la última fase de construcción), la empresa utilizará todas las herramientas que estén a su disposición para llevarla a cabo, ya que este proyecto es muy importante para el objetivo de la transición energética del país*”.

En Galicia, en el 2021, hubo grandes movilizaciones ante el mayor proyecto de tierra que Statkraft quiere realizar en el estado español. Entre todos los proyectos propuestos, la empresa tiene intención de implantar uno de 400 Mw. La riqueza natural y arqueológica del entorno, así como los desacuerdos de los lugareños, de momento, no han conseguido parar el proyecto a pesar de que, hace poco, hemos sabido que el Ministerio de Transición Energética ha pedido una pausa temporal a alguno de los proyectos.

Por otro lado, si prestamos atención a los datos;

El 40% de las exportaciones de Noruega lo constituyen las ventas de hidrocarburos, y han dejado claro que seguirán explorando el Ártico en busca de gas y petróleo. Statkraft nunca ha obtenido tantas ganancias como en 2023: 2.300 millones de euros. Statkraft ha comprado Enerfin (1.800 millones) y Solarcentury (130 millones).

Es importante mencionar el vínculo directo que Statkraft (o, mejor dicho, el gobierno noruego), entidad que EH Bildu presenta como encarnación de un modelo nuevo de empresa, tiene con Iberdrola. Entre los mayores accionistas de Iberdrola se encuentran el fondo de pensiones noruego “*Norges Bank Investment Management*”, “*Qatar*” y “*Blackrock*”. Además, Statkraft e Iberdrola están colaborando en un proyecto que se está llevando a cabo en Polonia.

Teniendo todo esto en cuenta, a quedado claro que, tanto Statkraft como el gobierno de Noruega, en un contexto de crisis energética y en contra de los intereses populares, están priorizando el crecimiento económico. En consecuencia, la propuesta de EH Bildu para la transición energética de *alternativa* no tiene nada. Es una propuesta de un gestor del modelo económico actual, nada más.

Para hacer frente a la farsa del despliegue masivo de las energías renovables, hacemos un llamamiento a la manifestación convocada el 13 de abril en Azpeitia. ¡Anímate y participa!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-la-farsa-del>